

EKINTZAILETZARAKO ETA TURISMO ENPRESEN LEHIAKORTASUNAREN HOBETUNTZARAKO LAGUNTZAK-EMET2020

XEDEA: EAEen toki-garapenari lagunduko dioten turismo-negozio berriak sortzen laguntzeko oinarriak ezartzea, baita turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzera bideratutako jarduketak ere, guztia ere berrikuntza teknologikoaren babesarekin.

ONURADUNAK:

Euskal Autonomia Erkidegoan jarduteko eskatzen diren legezko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoek, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, eskuratu ahal izango dituzte; eta honako tipologia hauetako batean sartu beharko dute:

- a) Turismo-alojamenduko enpresak;
- b) Sukaldaritza-arloko enpresak;
- c) Bitartekaritzako turismo-enpresak;
- d) Turismo-garraioko enpresak;
- e) Turismo aktiboko enpresak;
- f) Biltzarrak antolatzen dituzten enpresa profesionalak;
- g) Turismo-gidak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Laguntza programak 2 lerro nagusi diruz lagunduko ditu:

1. **Turismo negozio berriak sortzeko ekintzailatza laguntza.** Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) epigrafean alta emanda dauden pertsonak (fisikoak edo juridikoak) sartu ahal izango dira ildo honetan, baldin eta 2018ko urtarrilaren 1aren ondoren eta 2020ko abenduaren 31 baino lehen eskatzen badute laguntza.

Kasu honetan diruz lagundu daitezkeen jarduerak eraketa gastuak, negozio-lokalen alokairua, abian jartzeko gastuak eta turismo negozioa abian jartzeko inbertsioak izango dira.

Ildo honetatik kanpo geratzen dira diruz lagun daitezkeen guztizko gastua 10.000€ garbi baino txikiagoa duten proiektuak.

2. **Turismo enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza.** Ildo honen xedea turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea da, berrikuntza teknologikoa babestuta, haien turismo-eskaintza hobetuta eta optimizatuta, eta turismo jasangarria eta eskuragarria izateko egokituta.

Kasu honetan ondorengo jarduerak izango dira diruz lagunduak:

- Turismo-enpresen eta zerbitzuen berrikuntza, soluzio teknologikoen bitartez

- Enpresen turismo-eskaintza hobetzea eta optimizatzea
- Eskaintza turismo jasangarrira, arduratsura eta eskuragarria bideratzea

DIRU LAGUNTZEN PORTZENTAJEAK ETA GEHIENEO ZENBATEKOAK:

Negozio berriak sortzera bideratutako ekintzailetza-proiektuetarako (I. eranskinean daude jasota) gehieneko diru-laguntza diruz lagun daitekeen gastuaren % 40 izango da, 18.000€ arte.

Turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratutako proiektuetarako (II. eranskinean daude jasota) gehieneko diru-laguntza diruz lagun daitekeen gastuaren % 30 izango da, 15.000€ arte.

ESKERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hau da, 2020ko ekainaren 6tik uztailaren 6 arte.

Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: www.euskadi.eus. Eskabidea lortzeko eta betetzeko, bitarteko elektronikoak erabili behar dira, helbide honetan: eskaera